

GIL 41 Karakateko ebaki bolkanikoa



Trakiten azaleratzea Karakate mendiaren gailurrean.

Kokapena



• **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 11' 32,16" N
Long.: 2° 24' 54,07" W

• **UTM koordenatuak:**

X: 547.532,00 m
Y: 4.782.332,00 m



Trakitaren xehetasuna. 1 cm-rainoko potasio-feldespatoko fenokristalak ikusten dira gris koloreko matrize afanitiko batean.

Nola iritsi

Soraluzetik autoz joaten da, Karakate mendiaren gailurrean dagoen telekomunikazio-antena eramatzen duen errepidea hartuta, San Andres auzotik igaroz.

Deskribapena

Karakate mendiaren gailurraren inguruan, Soraluzeren NW-an, azaleratzen diren Goi Kretazeoko arroka bolkanikoak nagusiki arroka trakitiko osatutako banda baten parte dira. N120E-rantz hedatuta dago, Munetaren SE-tik (Karakate) Kalamua mendiaren hegoalderaino, eta Arrateko gainaren ondo-ondotik igarotzen da, ekialdetik. Maila bolkanoklastikoz eta laba trakitiko osatuta dago banda hori, eta tartekatze basaltiko batzuk ditu. Laba trakitikoak kolada masibo, kuxin-kolada eta dike gisa azaleratzen dira.

Karakate mendiaren gailurraren inguruko sektorean, telekomunikazioen errepikagailuaren eta Munetaren gurutzaren artean (300 m, gutxi gorabehera), material-segida hau dago oinetik gainera (NE-SW): trakita masiboaren geruza bat, osagai trakitikoak dituen bretxa bat, kuxin-laba trakitikoaren kolada bat, kolada basaltiko bat eta trakita masibo bat (Rossy, 1988).

Laba masiboak eta bretxa trakitikoak dira azaleratze honen elementu bereizgarriak. Arroka horiek ehundura porfirikoa dute, eta matrize batean sartutako feldespatu alkalinozko eta albitazko (< 1 cm) fenokristal idiomorfiko gutxi batzuk ditu.



Kartel bat dago Karakate mendiaren gailurrean, Elosua-Soraluzeko Estazio Megalitikoari buruzko azalpenak ematen dituena.

Karakate mendiaren gailurraren eta Munetako gurutzearen artean dagoen arroka trakitikoen azaleratzeak aukera ematen du Eusko-Kantauriar arroko Kretazeoko serie bolkaniko alkalinoaren polo azidoa osatzen duten laben eta bretxa trakitikoen ezaugarriak ikusteko, zeinak oso gutxi agertzen baitira konplexu bolkanikoaren gordailuetan. Magma basaltikoen kristaltze frakzionatu bidez eratzten dira, eta agerian uzten dute magma basaltikoen sakonera txikiko uretako ganbera magmatikoetan duten gelditasuna eta bereizkuntza.

Baina, gainera, Soraluzetik Karakate mendiaren gailurreraino iristen den errepideak bikain erakusten du konplexu bolkanikoaren iparraldeko ebakidura geologikoaren alpea, alderik indartsuenean. Ebakidura horretan, Euskokantauriar arroko Kretazeoko itsaspeko konplexu bolkanikoa osatzen duten produktu bolkaniko ia guztiak agertzen dira: i) *sill* pikritikoak, ii) dike basaltikoak, iii) kuxin-labak eta laba masibo basaltikoak, iv) kuxin-bretxak, v) metakin piroklastikoak (bretxak, lapilliak, errautsak) eta vi) arroka mikrosienitikoak, intrusiboak segur aski.

Sill pikritikoa ebakidura horren berezitasun bat da. Izan ere, batetik, arroka horiek dira serie alkalinoaren termino basikoak; bestetik, nahiko gutxi aldatuak daude, eta jatorrizko mineralogia gehienari eusten diote. Egoera hori ez da oso ohikoa halako konplexu bolkanikoko arroketan, metamorfismo hidrotermal batek transformatua baitago haren mineralogia primarioaren zatirik handiena.

Sill-a, 25 m-ko lodierakoa gutxi gorabehera, Karakate mendiaren gailurrera heltzeko errepidean azaleratzen da, Barrenetxe baserriaren inguruan (Lat.: 43° 10' 41,85" N).



Sill pikritikoaren azaleratzea, arroaren jatorrizko paragenesia ondoen kontserbatzen duen zutabe-disjuntzioa daukana.

Long.: 2° 24' 15,01"W), San Andres auzora iritsi baino lehentxeago. Serie bolkanikoan sartzen da, oineko bretxa trakitiko baten eta gaineko oinarritzko maila bolkanoklastiko baten artean. Egitura masiboko eta fabrika isotropoko arroka ultramafikoz osatuta dago, eta zutabe-disjuntzio larria du. Anfibol berde baten presentzia duen ukipen-metamorfismo batek arinki eragiten die gainean kokatutako maila bolkanoklastikoei. Arroak, funtsean, olibinoaren kristal idiomorfikoz osatuta daude (1-4 mm; % 45 modala), eta espinela-inklusio ugari ditu, pikor fineko (< 1 mm) doleritikotik subofitikora bitarteko matrize batean sartuak.

Bigarren mailako interesa

Karakate mendiaren gailurrak Deba ibaiaren haranaren eta mugako mendien bista zoragarriak ematen ditu.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 39, GIL 38, GIL 41.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 34, GIL 35, GIL 36, GIL 37, GIL 38, GIL 39, GIL 40, GIL 42.



Mikrosienita, kolore argiko arroka intrusiboa, Karakate mendiaren gailurreko trakiten azpitik azaleratzen dena.



Morfologia desberdineko eta drainatzeko hodi ugariko kuxin-laben multzo baten azaleratzea.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa		●		
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				●
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: interes kultural handiko eremua da, Elosua-Soraluzeko Estazio Megalitikoa dela eta; Barandiaranek dolmenen ibilbidea izendatu zuen.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- *Rossy, M. (1988): Contribution a l'etude du magmatisme mesozoique du Domain Pyreneen.* Doktoresia, Franche-Comtéko Unibertsitatea, 368 or.